

## AURKEZPENA

**Donostiako Udalaren Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak 2019ko urtean zehar burututako jardueren memoria** biltzen du dokumentu honek. Ondorengo orrialdeetan aurkituko dituzuen datu eta taulak Zuzendaritzaren lana ikusaraztea dute helburu. Gizarte Zerbitzuak gero eta ezagun eta erabiliagoak izanagatik, oraindik ere urrun gaude, esaterako, hezkuntza edota osasun sistemari buruz gizartean dugun ezagutza mailatik. Datu hauek ezagutza orokor horretan lagunduko duten ustetan, eta ezagutzak aurrerako *bidean zer sakondu eta zer hobetu edo zabaldu* erakutsiko digutelakoan, saiatu gara aurten ere urtearen laburpen hau landu eta aurkezten.

Aurreko urteetan bezala, 2019an ere *helburu jakin bat izan dugu: Donostia hiri kohesionatua izan dadin, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren baitako udal zerbitzu eta prestazioak garatzeaz gain, herritarrei horietara heltzeko bidea erraztea*. Hona hemen urteko ibilbide horretako lorpen berri batzuk:

- Etxez Etxeko Zerbitzuaren kontratu berria martxan dago 2019ko urtearen hasieratik, zerbitzu hobea eskaintzeko helburuarekin landua. Eta aurten, berriro, zerbitzu-orduek nabarmen egin dute gora: %4,38 hain zuzen ere, 458.035,50 zerbitzu-ordutara iritsiz.
- Adin txikikoen babesaren esparruan AVI izeneko Programa berria (Atxikimendu seguruan oinarritutako esku-hartzea) abiatzeko urratsak eman ditugu eta horretarako Hitzarmena sinatu dugu Euskal Herriko Unibertsitatearekin programa aplikatuko duten profesionalen trebakuntza eta jarraipena lankidetzan egiteko.
- Intxaurrondo auzoan, gizarte-bazterketa egoera larrian dauden pertsonen eta familiei Eskuhartze Planaren baitan gizarte-laguntasuna emateko zerbitzu berria jarri da martxan.
- Varonako Elkartea (Altzan) handitu (aldamenekoa erositako) eta eraberritzeko obra amaitu eta inaugurazioa egin da 2019ko martxoan. Lanek 381.637,94 €-ko inbertsioa izan dute.
- Bost etxebizitza gehiago eskuratu ditugu bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat Larrialdiko etxebizitzaren eta Tutoretzapeko etxebizitzaren programetarako.
- Urritik aurrera martxan jarri dugu bazterketa arrisku egoeran dauden pertsonentzako larrialdiko etxebizitza eta tutoretzapeko etxebizitzetako erabiltzaileen arretarako prestazio teknikoak, gizarte-hezitzaileak kontratatuz.
- 2019ko Gizarte Ekintzako aurrekontua 2018koa baino %7,52 handiagoa izan da eta legealdi osoan, hau da, azken lau urteetako igoera metatua %24koa izan da.

Guzti horrekin lotuta, udal gizarte zerbitzuetako langileen lana eskertu nahi dut, beraien konpromisoa eta ardura ezagutzeko aukera izan baitut urte hauetan. Mila esker beraz, lan-talde osoari, donostiarron ongizatea lortzeko bidean, ezinbesteko lanean gogotsu ari zaretelako.

**Aitziber San Roman Abete**  
**Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkarria**